

# HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

## HM UDAZKENEKO KONTZERTUA

2022ko urriak 15ean - 18:30 - Oiartzungo Udaletxean - 5 €



## TXORBELA OTXOTEA

(Euskal Herria)

*Txorbela otxotea* 2008ko udazkenean sortu zen, Gipuzkoako Arrasate herrian. Zaletasun berak batzen zuen lagun talde batek sortu zuen, musikaz gozatzeko asmoz. Helburu batek elkartu zituen: gure kultur ondaren zati diren herri-kantak berreskuratzea, ahaztuta gelditu direnak, udazkenean orbela edo txorbela lurrean zabaldua egon ohi den moduan. Hortik datorkio izena taldeari.

Otxotea hamasei abeslarik osatzen dute. Kide hauek, gure inguruko abesbatza garrantzitsuetan aritu dira, edo horietan dihardute egun: *Donostiako Orfeoian*, *Goikobalu abesbatza*, *Conductus Ensemblen* edota *Capilla Peñafloridan*, besteak beste.

*Txorbela* emanaldi asko eskaini ditu: bai Euskal Herrian, eta baita penintsulan edota hemendik kanpo. Errepertorio zabala eta aberatsa du eta polifoniam eta folklorea oinarritzen dira, bereziki euskal musika landuz.

Honez gain, duela berrogeita hamar urte Arrasaten ospatu zen otxoteen lehiaketa gogora ekarriz azken urte hauetan *Txorbela* otxoteen topaketa bat antolatzen du, talde onenen parte hartzearekin.

2019an Mikel Arregik zuzendaritza utzi ondoren, Xabier Barriolak hartu dio lekukoa, *Txorbela* garai berri baten atarian kokatuz.

El *ochote Txorbela* nació en otoño de 2008 en la localidad guipuzcoana de Arrasate. Creado por un grupo de amigos unidos por la misma afición, con el fin de disfrutar de la música. Un objetivo los juntó: recuperar las canciones populares que forman parte de nuestro patrimonio cultural, que han quedado olvidadas, como suele estar la *orbela* o *txorbela* (hojarasca en euskera) extendida por el suelo en otoño. De ahí le viene el nombre al grupo.

El *ochote* está compuesto por dieciséis cantantes. Estos han cantado o siguen cantando en los coros más importantes de nuestro entorno, como el *Orfeón Donostiarra*, el *coro Goikobalu*, el *Conductus Ensemble* o la *Capilla Peñaflorida*, entre otros.

*Txorbela* ha ofrecido muchas actuaciones: tanto en el País Vasco como en la península o fuera de aquí. Cuenta con un amplio y rico repertorio y se basa en la polifonía y el folklore, trabajando especialmente la música vasca.

Además de esto, recordando el concurso de *ochotes* que se celebró hace cincuenta años en Arrasate estos últimos años *Txorbela* organiza un encuentro de *ochotes* con la participación de los mejores grupos.


Tras la salida de Mikel Arregi en 2019, Xabier Barriola le ha tomado el relevo, situando a *Txorbela* a las puertas de un nuevo tiempo.

# HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

## HM UDAZKENEKO KONTZERTUA

2022ko urriak 15ean - 18:30 - Oiartzungo udaletxean - 5 €

### CANTA SE GAUSAS: ALLEGRIA eta SORINAS (Bigorra)



Allegria

**Canta se gausas!** *Kanta ezak ausartzen bahaiz!* Gaskoiniako Pirinioetako herri tradizioak zerbitzatu nahi dituen izpiritu berritzailea da. Bere ekintza, batez ere, Bigorra eta Biarnoko ahozko tradizioko polifoniei eta Gaskoiniako musika eta dantza tradizionaleri lotua dago.

Horrela, CSGko taldeak antzinako ahozko ondare immaterial hori eguneratu nahi du bilketa, transmisio, hedapen eta lurraldearen animazioaren bidez. Ateak denei irekita, elkar-teak euskarri independentea izan nahi du, oinordetza horren alde diren borondate guziak babestu, Pirinioetako gizarte tradizionalaren errituak zainduz.

Elkartea osatzen duten kideen artean daude *Allegria* eta *Sorinas* taldeak. Herriko festa eta ezkontzetan abesti polifonikoak abesteko elkartutako gazteek osatzen dituzte. Beraietako askok Pirinioetako abestiak sehaskatik jaso dituzte eta beraien inguruan ezagutzera ematen dituzte.

**Allegria:** Lurda eta Banhèras de Bigòrra jatorria duten zazpi gizonen osatua. Abesteko era sakona, indartsua eta askea dute. Haien kantuak beren mendien arima eta izaera transmititzen ditu.

**Sorinas:** Ahizpak esan nahi du gaskoieraz. Bigorrako lau emakume hauek ahozko tradizioko polifonia lau ahotsetan biziarazten dute mendiko kantuen estetika babestuan.

**Canta se gausas!** *¡Canta si te atreves!* Es un espíritu innovador que quiere servir a las tradiciones populares de los Pirineos gascones. Su acción está ligada, sobre todo, a las polifonías de tradición oral de Bigorra y Bearn y a la música y danzas tradicionales gasconas.

De esta forma, el equipo del CSG pretende actualizar este antiguo patrimonio oral inmaterial a través de la recolección, transmisión, difusión y animación del territorio. Con las puertas abiertas a todos, la asociación quiere ser un soporte independiente, proteger todas las voluntades en favor de esa herencia, preservando los ritos de la sociedad tradicional pirenaica.

Entre los integrantes de la asociación se encuentran los grupos *Allegria* y *Sorinas*. Están formados por jóvenes asociados para cantar canciones polifónicas en las fiestas y bodas del pueblo. Muchos de ellos han recogido canciones de los Pirineos desde la cuna y las dan a conocer a su alrededor.

**Allegria:** formada por siete hombres procedentes de Lourdes y Bañeras de Bigorra. Su forma de cantar es profunda, potente y libre. Su canto transmite el alma y el carácter de sus montañas.

**Sorinas:** significa hermansa en gascón. Estas cuatro mujeres de Bigorra dan vida a la polifonía de tradición oral a cuatro voces en la estética protegida de las canciones de montaña.



Sorinas

kontzertu honen  
laguntzaileak:

